



LEGE BERRIA

Kontsumorako urak
arautzeko lege berriak
zorrotzu egingo ditu
segurtasun eta
kalitaterako neurriak

sortzen dira; hain zuzen ere, kloro gehiegi erabiltzeagatik. Frogatua dago trihalometanoek giltzurdin eta gibealeko arazoak eragin ditzaketela, eta ez dute baztertzeko minbizia eragin dezaketarik.

Irakurleak lasaitzeko, baina, gogoratu Euskal Herrian egin diren ikerketek ez dutela trihalometanoen maila arriskutsutzat jotzen.

Neurtu diren beste bi elementuei dagokienaz, azterketek ez dute horien azterketek aurkitu zazi herri horietan. Hala ere, egun ez aurkitzeko ez du ematen etorkizunerako ziurtasunik. Konposatu lurrunkorren kasuan, lege kanpoko isurketa batek edota istripuz gertatutako isurketa batek alda dezake emaitza hori. Industria kimikotik sortzen dira, erregai, disol-

batzaile edota garbiketa produktuei botatzeko. Erraz lurruntzen diren substantziak dira, eta euriaren bidez ere irits daitezke uretara. Hainbat motatakoak dira konposatu lurrunkorrek, eta osasunean eragin ezberdina izan dezakete.

Kasu horietarako, lege berriak sektoreka itxi daitezkeen hodi sareak egitea nahi du; hala, isurketarik egongo balitz, posible litzateke kutsadura inguru jakin batera mugatzea. Kontsumitzaile Elkarteak, bestalde, kontrolak «maiztasun handiz» egitea aholkatzen du, isurketak saihesteko modu gisa.

Azkenik, Espainiako Kontsumitzaileen Elkarteak laborariak erabiltzen dituzten pestizida triazinen neurketa egin du kontsumorako uretan. Kasu horretan ere emaitzak ezezoak izan dira Hegoaldean.

Euriaren bidez eta ureztatzen bidez irits daitezke pestizida horiek uretara, eta hainbatek minbizia ere eragin dezaketela diote adituek. Kasu horretan, horrelako produktuak erabiltzen dituzten laborariak eragin dezaketen kaltearen gainean «sentsibilizatzea» aholkatzen du Kontsumitzaileen Elkarteak.

JOSETXO SAIZAR | GIPUZKOAKO UR PARTZUERGOKO ZUZENDARI TEKNIKOA

«Gurean kontsumitzen den ura osasunerako segurua eta ona dela esan dezakegu»

E.G. | DONOSTIA

Edaten dugun urak nolako prozesua jarraitzen duen jakiteko, Josetxo Saizar Gipuzkoako Ur Partzuergoko zuzendari teknikoarekin hitz egin du EGUNKARIAK. Hark esandakoaren arabera, edari sana izateaz gain, ezin dezakegu zalantzarik eduki gure iturrietatik datorren uraren kalitatearen inguruan.

■ **Nolako prozesua jarraitzen du urak, hartzen den mementotik gure iturrietaraino iritsi arte?**

Gipuzkoako Kontsurtzioko urek Ur Edangarriko Trataleketan jasotzen dute tratamendua; urtegiatiko urei dagokienaz, horrez gain, materia organikoa, burdina eta manganesoa kentzea da egiten den lan nagusia, bukeran desinfektatzeko. Urak jarraitzen duen tratamendua- ren ibilbidea honako hau da; aurreozonizazioa, errektibo nahasketa, dekantazioa, tarte-ko ozonizazioa, iragazketa eta desinfekzioa. Ozonoa prozesu guztian erabiltzen da, eta kloroa soilik desinfekzio lanetan.

■ **Prozesu horrek ziurtatzen al du gure iturrietara iristen den urak substantzia kutsakorrik ez edukitzea?**

Bai, egungo Araudi Tekniko Sanitarioan ezartzen diren baldintza guztiak betetzen ditugu, gainera. Orokorrean, daukagun ura berez nahiko kalitate onekoa da. Urtegi inguruetan ez dago industria-rik, ezta kutsadura kimikorik ere; zelaletako ongarri eta azienda ustiapenen isurkinak ez badira behintzat.

■ **Nola egiten dira uraren kalitatea neurtzeko kontrolak? Nahikoak al dira kontrol horiek kontsumitzaileek lasai edan dezaten?**

Gure laborategietako pertsonalak prestakuntza berezia du egin behar dituzten analitika metodoetan. Metodologia osoa ISO 9.002 kalitate segurtasun sisteman ezarritakoaren arabera erabiltzen da, eta urtero-urtero AENOREk auditatzen ditu prozedurak. Bestetik, barne bermea kontrolatzeko, beste erakunde eta laborategi pribatuekin konparaketak egiten ditugu,

KALITATEA

«Orokorrean, gure ura kalitate onekoa da»

TRATAMENDUA

«Ur gordina egunero aztertzen dugu, eta ur tratatua beste hainbeste»

ETORKIZUNERA BEGIRA

«Desinfekziorako izpi ultramoreak erabiltzeko aukera aztertzen ari gara»

daukagun emaitzak kontrastatzeko.

Analitika guztiak lekuan lekuko araztegi bakoitzeko laborategietan eta Urretxuko laborategi nagusiak egiten dira.

■ **Ze maiztasunekin egiten dira azterketak?**

Urtegia betetzen duten ibaie- tango uretan astero egiten dira analitikak; urtegi bertako uren analitikak urtean zortzi aldiz egiten ditugu, bakoitzean sei analitika —guztira 48—; Ur Edangarrien Tratale- kuan ur gordina egunero aztertzen dugu, eta ur trata- tuarekin beste hainbeste; azkenik, herrietan ere egiten da azterketa, biztanleen kopuruaren arabera. Horrez gain, Jaurilaritzako Osasun Sailak ere bere analitikak egi- ten ditu, araudiaren arabera.

Beraz, kontrol horiek nahi- koa dira herritarrek ura lasai kontsumitu dezan, kalitate osoa eta segurtasun osoa dutela zalantzan ipini gabe.

■ **Zeintzuk dira ura iturrietara iritsi bitartean kontrolatzen dituzuen parametroak edateko modukoa dela esan arte?**

Araudiak ezartzen dituen parametroak dira guk neur- tzen ditugunak: ezaugarri organoleptikoak, fisiko-kimi- koak, substantzia ez desira- garriak, mikrobiologikoak eta desinfektanteak.

■ **Orain lege berria jarriko**

dute indarrean, kontsumo- rako uren kalitatearen ingurukoa. Egungoa baino zorrotzagoa izango da; horrek egokitzapenik eska- tuko al du hemengo urtegi eta depositoeetan?

Ez, ur gordinaren kalitatea berez nahiko ona delako. Bestetik, daukagun instala- zio eta azpiegiturak berriak dira, ondo ekipatu eta man- tenduta daude. Beraz, orain- goz aldaketak ez dira beha- rrezkoak izango lege berriari egokitzeko.

■ **Ezagutzen duzunaren arabera, euskal herritarrok edaten dugun ura osasune- rako segurua dela esan dai- teke?**

Nik gure barrutiari buruz hitz egin diezazuket, eta gurean kontsumitzen den ura osasu- nerako segurua eta ona dela esan dezaket.

■ **Urari kloro gehiegi bota- tzearen ondorioz sortzen diren trihalometanoek era- gin dute kezka kontsumi- tzaileen artean; eta horri aurre egiteko modu bat ikatz aktibatuzko iragaz- kiak ezartzea dela diote adituek. Gipuzkoan erabi- tzen al dira iragazki horiek?**

Gure instalazioetan ez da horrelakorik erabiltzen, ez delako behar. Materia organi- ko askori kloroa gehitzerako- an sortzen dira trihalometanoak, eta guk kloroa bakarrik desinfekziorako erabiltzen dugu, eta materia organikoa kendu ostean botatzen diogu, gainera. Beraz, ez daukagu horrelako arazorik.

Konkretuki, gai horiek neurtzeko egindako analitike- tan litroko 25 mikrogramoko gehieneko kopurua atzeman dugu, eta araudi berriak 100 mikrogramotan ezartzen du gehieneko. Dena dela, Ibaiederko Ur Edangarriko Trataleketan eta esperimen- tu gisa, proba batzuk egin genituen ikatz aktibatuzko iragazkiekin, eta apenas hobetu zen uraren kalitatea. Alde on eta kontrakoak kon- tuan harturik, baztertu egin dugu filtro horien beharra.

Oraingo, eta epe ertainera begiratuta, ezaugarri mikro- biologikoak eta desinfekzioa hobetzeko ultramore izpiak erabiltzeko aukera aztertzen ari gara.